

BESTELAKO XEDAPENAK

HEZKUNTZA SAILA

1923

AGINDUA, 2021eko martxoaren 16koa, Hezkuntzako sailburuarena, hezkuntza-ituna duten ikastetxe pribatuentzako dirulaguntzen deialdia egiten duena, Ulibarri 2021-2022 Programan jarraitzeko edo sartzeko.

Ekainaren 11ko 84/2019 Dekretuak (ekainaren 21eko EHAA) Hizkuntza Normalkuntzako Ulibarri Programa arautzen du.

Aipatu dekretuaren 8.d) artikulua zera dio: «Hezkuntza-ituna duten ikastetxe pribatuetan, hezkuntza arloko eskumenak dituen Sailak dirulaguntza emango du ikastetxeko hizkuntza normalizazioko arduradun teknikoari bere eskola-emankizunetan esleitu zaizkion ezinbesteko liberazio-orduen kostua ordaintzeko, dekretu honen 20. artikuluan xedatutakoarekin bat».

Bestalde, Dekretuaren 18.1 artikulua lehen puntuak honako hau dio: «Dirulaguntza deialdia hezkuntza alorreko eskumenak dituen sailburuaren agindu baten bidez egingo da. Deialdi horretan ezarriko dira programari esleitutako aurrekontu-kreditua eta eskabideak aurkezteko epea». Deialdi hau 2021. urteko Dirulaguntzen Plan Estrategikoan jasota dago. Horrez gain, Dekretuaren 27.3 artikulua dio hezkuntza-ituna duten ikastetxe pribatuentzat aipatutako prozedurak agindu bakarrean iragarri ahal izango direla, edo deialdi berezietan.

Deialdi honen prozeduran aplikagarri izango dira Hizkuntza normalizazioko Ulibarri Programa unibertsitateaz kanpoko ikastetxeetan arautzen duen ekainaren 11ko 84/2019 Dekretua (ekainaren 21eko EHAA), Dirulaguntzei buruzko azaroaren 17ko 38/2003 Lege Orokorraren eta berorren araudia onartzen duen uztailaren 21eko 887/2006 Errege Dekretuaren oinarritzko xedapenak, Dirulaguntzei buruzko azaroaren 11ko 1/1997 Legegintza Dekretua (VI. titulua), Euskadiko Ogasun Nagusiaren Antolarauei buruzko Legearen testu bategina onartzen duena, eta abenduaren 17ko 698/1991 dekretua, abenduaren 17koa, Euskal Autonomia Erkidegoaren Aurrekontu Orokorren pentzudan ematen diren dirulaguntzen bermeei eta horiek itzultzeari buruzko erregimen orokorra arautzen duena eta horien kudeaketan parte hartzen duten Entitate Laguntzaileek bete beharreko baldintzak, erregimena eta eginbeharrak ezartzen dituena.

Hortaz, Ulibarri Programak eta 2021-2022 ikasturtean bertan arituko diren ikastetxeek izango dituzten baliabideak finkatu behar dira batetik eta, bestetik, programan sarbidea eskatu nahi duten ikastetxeentzako prozedura ezarri behar da agindu bidez.

Horren guztiaren haritik, hau

XEDATZEN DUT

1. artikulua.– Xedea eta diru-baliabideak.

1.– Deialdi honen xede nagusia da hezkuntza-ituna duten ikastetxe pribatuei dei egitea Ulibarri Programako 2021-2022 ikasturteko eskabideak egin ditzaten. Eskatzaileak berriak edo jarraitu nahi dutenak izan daitezke.

Deialdi honi dagokion araudia Unibertsitateaz kanpoko ikastetxeetan hizkuntza normalizazioko Ulibarri Programa arautzen duen ekainaren 11ko 84/2019 dekretuan dago jasota.

2.– Deialdi honetan, Ulibarri Programan sartuko diren edo jarraituko duten itunpeko ikastetxeei dirulaguntzak esleitzeko 1.225.000 euro erabiliko ditu, gehienez, Hezkuntza Sailak.

2. artikulua.– Eskabideak.

1.– Ulibarri Programan sartu edo jarraitu nahi duten hezkuntza-ituna duten ikastetxeek eskabidea egin behar dute. Horretarako, hilabeteko epea izango dute, agindu hau EHAA n argitaratzen den egunaren biharamunetik aurrera.

Eskabideak aurkezteak deialdi honetako oinarriak definitzen dituzten baldintzak espresuki eta formalki onartu direla adierazten du.

2.– Ikastetxe berriak: 2021-2022 ikasturterako Ulibarri Programara bildu nahi duten ikastetxeek, eskabidearekin batera, honako dokumentuak aurkeztu behar dituzte:

a) Ikastetxearen hizkuntza normalizazioko proiektua, ekainaren 11ko 84/2019 Dekretuan ezarritakoaren arabera eta aplikazioari begira Berritzeguneetako hizkuntza normalizazioko aholkulariek emandako instrukzioekin bat, eta, betiere, www.ulibarri.euskadi.eus webgunean dagoen eredia erabilia.

b) Proiektu-proposamenak ikastetxeko Ordezkaritza Organo Gorenaren edo ikastetxeko Eskola Kontseiluaren onarpena baduela egiaztatzen duen agiria (akta).

c) Proiektu-proposamena ikastetxeko Hizkuntza Proiektuaren ildo nagusietan txertatzen dela egiaztatzen duen Ikastetxeko zuzendaritzaren agiria.

Eskabideak nola bete behar diren jakin nahi izanez gero, honako helbide honetara jo daiteke:

www.euskadi.eus/zerbitzuak/0173217

3.– Ulibarri Programan dauden ikastetxeak: 2021-2022 ikasturtean Ulibarri Programan jarraitu nahi duten ikastetxeek horretarako eskabidea egin beharko dute helbide honetan aurkeztu diren arauen arabera:

www.euskadi.eus/zerbitzuak/0173218

4.– Eskabidea egin ondorenko jarraibidea gunen bitartez egingo da:

<https://www.euskadi.eus/nirekarpeta>.

5.– Identifikaziorako eta sinadura elektronikorako onartzen diren bitartekoak Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Publikoaren egoitza elektronikoen honako helbide honetan daude eskuragarri:

www.euskadi.eus/ziurtagiri-elektronikoak

6.– Ordezkaritza baten bidez ere izapidetu ahal izango da elektronikoki. Horretarako, ordezkaritza Eusko Jaurlaritzaren Ordezkaritza Erregistroan inskribatu beharko da, eta helbide honen bidez eskuratu ahal izango da:

www.euskadi.eus/ordezkaritza

3. artikulua.– Eskatzaileek egin beharrekoak eta justifikazioa.

1.– Ulibarri Programan dauden ikastetxeek, sartu berriek zein lehendik daudenek, 2021eko irailaren 1etik 2021eko irailaren 30era bitartean, 2021-2022 Hizkuntza Normalizazioko Ikasturteko Plana eskegi beharko dute Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Publikoaren egoitza

elektronikoko «nire karpeta» atalean: <https://www.euskadi.eus/nirekarpeta>. Baldintza hori bete beharko dute eskabidea egin eta gero, eta Ulibarri Programaren Jarraipen Batzordeak oniritzia emandakoan.

2.– Era berean, 2022ko martxoaren 1etik 2022ko apirilaren 1era bitartean, 2021-2022 ikasturteko bukaerako memoria aurkeztu behar dute Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Publikoaren egoitza elektronikoko «nire karpeta» atalean: <https://www.euskadi.eus/nirekarpeta>

3.- 2021-2022 ikasturtean aritutako Ikastetxeko hizkuntza normalizazioko arduradun teknikoaren (HNAT) diruz lagundutako liberazio-orduak estaltzeko kontratatutako irakasleen nominak eskegi beharko dituzte 2022ko ekainaren 1etik 2022ko ekainaren 30era bitartean egoitza elektronikoko «nire karpeta» atalean: <https://www.euskadi.eus/nirekarpeta>

a) Honako nomina hauek aurkeztu behar dira: 2021eko irailetik 2022ko ekainera artekoak, biak barne.

b) Aurkeztu beharreko nominak ikastetxeko Planaren arduradun teknikoa (HNAT) ordezkatzeko kontratatutako irakasleenak dira.

c) Ikastetxean planaren arduraduna ordezkatzeko kontratatutako irakasleen nominekin Ordainketa Eskuordetutik kanpo egon beharko dute.

d) Ikastetxeek justifikazio-inprimakia bete eta eskegi beharko dute. Inprimakia helbide honetan dago:

www.euskadi.eus/zerbitzuak/0173218

4.– Orotan, 2021-2022 ikasturtean, ikastetxe guztiek ikastetxean bertan eta bere eragin-esparruan erabilerak bizi duen egoeraren azterketa (diagnostikoa) eta hurrengo lau urteetarako hizkuntza normalizazioko proiektua egin behar dute. Lau urteko proiektua aurkezteko epea hila-betekoa izango da 2022-2023 ikasturterako Ulibarri agindua EHAAan argitaratzen den egunetik aurrera.

4. artikulua.– Jarraipen-batzordearen osaera.

Honako pertsona hauek osatuko dute:

– Batzordeburua: Ikaskuntza eta Hezkuntza Berrikuntzaren zuzendaria. Amaia Agirre Pinedo.

– Bokalak:

a) Ikaskuntza eta Hezkuntza Berrikuntzaren Zuzendaritzako Euskara Zerbitzuko burua.

b) Euskara Zerbitzuko Ulibarri Programaz arduratzen diren bi teknikari. Alfredo Castresana Herran eta Maitane Izagirre Zubimendi.

c) Berritzeguneetako normalizazioko bi aholkulari (HNA) eta Berritzeguneko hizkuntza normalizazioko programaren arduraduna: Maria Luz Arranz Uribarrena, Garbiñe Altuna Villar eta Joseba Ibarretxe Fernandez de Larrinoa.

d) Egoki iritzi gero, hizkuntza normalizazioaren arloan itzala duten adituek ere parte hartu ahal izango dute batzordean, gehienez bik.

– Idazkaria: b) letran aipatutako teknikarietako bat.

5. artikulua.– Bete beharreko araudia.

Deialdi honi dagokion araudia Unibertsitateaz kanpoko ikastetxeetan hizkuntza normalizazioko Ulibarri Programa arautzen duen ekainaren 11ko 84/2019 dekretuan dago jasota.

AZKEN XEDAPENETAKO LEHENENGOA

Agindu honek amaiera ematen dio administrazio-bideari; beraz, beronen aurka, berraztertze errekurtsoa jar dakioko Hezkuntzako sailburuari hilabeteko epean, EHAAan argitaratu eta hurrengo egunetik aurrera. Era berean, administrazioarekiko auzi-errekurtsoa jar daiteke Euskal Autonomia Erkidegoko Auzitegi Nagusiko Administrazioarekiko Auzien Salan, argitaratu eta biharamunetik aurrera bi hilabeteko epean.

AZKEN XEDAPENETAKO BIGARRENA

EHAAan argitaratu eta hurrengo egunean sortuko ditu ondorioak agindu honek.

Vitoria-Gasteiz, 2021eko martxoaren 16a.

Hezkuntzako sailburua,
JOKIN BILDARRATZ SORRON.

2021eko apirilaren 6a, asteartea

ESKABIDE ELEKTRONIKOA
ULIBARRI PROGRAMA – BERRIAK

Organo instrukzio-egileari zuzenduta:

HEZKUNTZA BERRIZTATZEKO ZUZENDARITZA

Datu pertsonalak

Titularra

Identifikazio-dokumentua		Zenbakia	
Izena		Abizenak	
Sexua	<input type="radio"/> Gizona <input type="radio"/> Emakumea		

Ordezkarria

Identifikazio-dokumentua		Zenbakia	
Izena		Abizenak	
Sexua	<input type="radio"/> Gizona <input type="radio"/> Emakumea		

Jakinarazpen eta komunikazioetarako kanala

Elektronikoa: Nire kudeaketak guneko jakinarazpen eta komunikazioen atalera igorriko dira. Bertan sartzeko, identifikazio elektronikorako bitarteko bat beharrezkoa da.

10 egun naturaletan jakinarazpen elektronikoa batera sartzen ez bazara, ulertuko dugu ez duzula onartu. Ondorioz, izapidea egintzat joko da, eta administrazioak prozedura tramitatzen jarraituko du.

Abisuak jasotzeko datuak

Posta elektronikoa	
Mugikorra	

Jakinarazpen, komunikazio eta abisuen hizkuntza

Euskara Gaztelania

oinarrizko datuak

Zein lurralde / probintzian daude erakunde eskatzailearen datu fiskalak	
Ikastetxearen kodea:	

Erantzukizunpeko adierazpenak

Bateragarritasun-adierazpenak

- Ez da laguntzarik jasotzen ari xede eta helburu berarekin administrazio publikoen edo erakunde pribatuen eskutik.
- Administrazio publiko edo erakunde pribatuen bati laguntza eskatu dio xede eta helburu berarekin eta eman egin dio (atal honetako datuak eranskinean zehaztu beharko dituzu).
- Administrazio publiko edo erakunde pribatuen bati laguntza eskatu dio xede eta helburu berarekin baina erantzunaren zain dago (atal honetako datuak eranskinean zehaztu beharko dituzu).

2021eko apirilaren 6a, asteartea

Beste adierazpenak batzuk:

- Ez dago dirulaguntza edo laguntza publikoak jasotzeko gaitasunik gabe uzten duten lege-debekuen eraginpean, beren-beregi sexu-diskriminazioagatik lege-debekuen eraginpean.
- Itunpeko ikastetxea da.
- Ez daude oraindik izapidetzen ari den inongo itzulketa- edo zehapen-prozeduratan sartuta, Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Orokorrak edo beraren erakunde autonomoek emandako izaera bereko laguntzen edo dirulaguntzen esparruan.
- Proiektua ulibarri.info gunean bete du (Horrela ez bada, eskabide honen 2. urratsean erantsi ahal izango du).
 - o Ulibarri.info webgunean beteta dago
 - o Eskabide honekin batera atxikituko dut
- Betetzen ditu indarrean dagoen legediak ezarritako baldintzak.
- Hemen jasotako datu guztiak egiazkoak direla eta osorik daudela, baita aurkezten dudak dokumentazioa ere, eta nire gain hartzen dut dagokion erantzukizuna (Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legearen 28.7 artikulua).

Datuen babesari buruzko informazio oinarritzkoa

Eskabidean agertzen diren datu pertsonalak erabiliko dira, eta tratamendu-jarduera honi erantsiko zaizkio Hezkuntza Berritzatzeko dirulaguntzak.

Arduraduna: Hezkuntza Berritzatzeko Zuzendaritza, Hezkuntza Saila

Helburua: Hezkuntzaren Berritzatzea finantzatzea eta laguntzea

Legitimazioa: Tratamendua beharrezkoa da, interes publikoaren aldeko eginkizunen bat betetzeko edo tratamenduaren arduradunari emandako botere publikoak betetzeko jardunean.

Hartzaileak: Autonomia Erkidegoko beste organo batzuk. Ekonomia eta Ogasun Saila

Eskubideak: Datuak eskuratzeko, zuzentzeko eta ezabatzeko eskubidea duzu, baita informazio gehigarrian jasotzen diren bestelako eskubide batzuk ere.

Informazio osagarria: Gure web-orrian kontsulta dezakezu Datuen Babesari buruzko informazio gehigarri eta zehaztua

(www.euskadi.eus/informazio-klausulak/web01-sedepd/eu/gardentasuna/050400-cap2-eu.shtml)

Araudia:

Datuen Babeserako Erregelamendu Orokorra

(www.euskadi.eus/contenidos/informacion/normativa_dpd/eu_def/adjuntos/RGPD-2016_0679_eu.pdf)

3/2018 Lege Organikoa, abenduaren 5ekoa, Datu Pertsonalak Babestekoa eta Eskubide Digitalak

Bermatzekoa. (www.boe.es/boe_euskera/dias/2018/12/06/pdfs/BOE-A-2018-16673-E.pdf)

Dokumentu hauek kontsultatzeko baimena ematen dut:

Aurkeztutako dokumentuaren izena	Emate-data	Emate-organoa

Organo instrukzio-egileak ofizioz konprobatzea

Aplikatu beharreko araudiaren arabera, prozedura honen instrukzio-organoak **ofizioz egiaztatuko ditu** administrazio eskudunean datu hauek:

- ✓ Gizarte Segurantzaren ordainketan egunean egotea (Gizarte Segurantzaren Diruzaintza Nagusia - GSDN)
- ✓ Zerga-betebeharren ordainketa egunean izatearen datuak (Euskal Foru Aldundiak eta Zerga Administrazioeko Estatu Agentzia)

Honek elektronikoki izenpetuta:

2021eko apirilaren 6a, asteartea

ESKABIDE ELEKTRONIKOA
ULIBARRI PROGRAMA – JARRAITASUNA

Organo instrukzio-egileari zuzenduta:

HEZKUNTZA BERRIZTATZEKO ZUZENDARITZA

Datu pertsonalak

Titularra

Identifikazio-dokumentua		Zenbakia	
Izena		Abizenak	
Sexua	<input type="radio"/> Gizona <input type="radio"/> Emakumea		

Ordezkarria

Identifikazio-dokumentua		Zenbakia	
Izena		Abizenak	
Sexua	<input type="radio"/> Gizona <input type="radio"/> Emakumea		

Jakinarazpen eta komunikazioetarako kanala

Elektronikoa: Nire kudeaketak guneko jakinarazpen eta komunikazioen atalera igorriko dira. Bertan sartzeko, identifikazio elektronikorako bitarteko bat beharrezkoa da.

10 egun naturaletan jakinarazpen elektronikoa batera sartzan ez bazara, ulertuko dugu ez duzula onartu. Ondorioz, izapidea egintzat joko da, eta administrazioak prozedura tramitatzen jarraituko du.

Abisuak jasotzeko datuak

Posta elektronikoa	
Mugikorra	

Jakinarazpen, komunikazio eta abisuen hizkuntza

Euskara Gaztelania

oinarrizko datuak

Zein lurralde / probintzian daude erakunde eskatzailearen datu fiskalak	
Ikastetxearen kodea:	

Erantzukizunpeko adierazpenak

Bateragarritasun-adierazpenak

- Ez da laguntzarik jasotzen ari xede eta helburu berarekin administrazio publikoen edo erakunde pribatuen eskutik.
- Administrazio publiko edo erakunde pribatuen bati laguntza eskatu dio xede eta helburu berarekin eta eman egin dio (atal honetako datuak eranskinean zehaztu beharko dituzu).
- Administrazio publiko edo erakunde pribatuen bati laguntza eskatu dio xede eta helburu berarekin baina erantzunaren zain dago (atal honetako datuak eranskinean zehaztu beharko dituzu).

2021eko apirilaren 6a, asteartea

Beste adierazpenak batzuk:

- Ez dago dirulaguntza edo laguntza publikoak jasotzeko gaitasunik gabe uzten duten lege-debekuen eraginpean, beren-beregi sexu-diskriminazioagatiko lege-debekuen eraginpean.
- Itunpeko ikastetxea da.
- Ez daude oraindik izapidetzen ari den inongo itzulketa- edo zehapen-prozeduratan sartuta, Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Orokorrak edo beraren erakunde autonomoek emandako izaera bereko laguntzen edo dirulaguntzen esparruan.
- Betetzen ditu indarrean dagoen legediak ezarritako baldintzak.
- Hemen jasotako datu guztiak egiazkoak direla eta osorik daudela, baita aurkezten dudan dokumentazioa ere, eta nire gain hartzen dut dagokion erantzukizuna (Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legearen 28.7 artikulua).

Datuen babesari buruzko informazio oinarrikoa

Eskabidean agertzen diren datu pertsonalak erabiliko dira, eta tratamendu-jardura honi erantsiko zaizkio Hezkuntza Berritzatzeko dirulaguntzak.

Arduraduna: Hezkuntza Berritzatzeko Zuzendaritza, Hezkuntza Saila

Helburua: Hezkuntzaren Berritzatzea finantzatzea eta laguntzea

Legitimazioa: Tratamendua beharrezkoa da, interes publikoaren aldeko eginkizunen bat betetzeko edo tratamenduaren arduradunari emandako botere publikoak betetzeko jardunean.

Hartzaileak: Autonomia Erkidegoko beste organo batzuk. Ekonomia eta Ogasun Saila

Eskubideak: Datuak eskuratzeko, zuzentzeko eta ezabatzeko eskubidea duzu, baita informazio gehigarrian jasotzen diren bestelako eskubide batzuk ere.

Informazio osagarria: Gure web-orrian kontsulta dezakezu Datuen Babesari buruzko informazio gehigarri eta zehaztua

(www.euskadi.eus/informazio-klausulak/web01-sedepd/eu/gardentasuna/050400-cap2-eu.shtml)

Araudia:

Datuen Babeserako Erregelamendu Orokorra

(www.euskadi.eus/contenidos/informacion/normativa_dpd/eu_def/adjuntos/RGPD-2016_0679_eu.pdf)

3/2018 Lege Organikoa, abenduaren 5koa, Datu Pertsonalak Babestekoa eta Eskubide Digitalak

Bermatzekoa. (www.boe.es/boe_euskera/dias/2018/12/06/pdfs/BOE-A-2018-16673-E.pdf)

Dokumentu hauek kontsultatzeko baimena ematen dut:

Aurkeztutako dokumentuaren izena	Emate-data	Emate-organoa

Organo instrukzio-egileak ofizioz konprobatzea


Aplikatu beharreko araudiaren arabera, prozedura honen instrukzio-organoak **ofizioz egiaztatuko ditu** administrazio eskudunear datu hauek:

- ✓ Gizarte Segurantzaren ordainketan egunean egotea (Gizarte Segurantzaren Diruzaintza Nagusia - GSDN)
- ✓ Zerga-betebeharren ordainketa egunean izatearen datuak (Euskal Foru Aldundiak eta Zerga Administrazioeko Estatu Agentzia)

Honek elektronikoki izenpetuta:

--

2021eko apirilaren 6a, asteartea



ULIBARRI DEIALDIA 2021-2022

Kodea:

Ikastetxearen izena:

Jasotako dirulaguntza:

JUSTIFIKAZIOA

HNAT-aren izen-deiturak (Hizkuntza Normalizazioko Arduradun Teknikoa)

NAN	Izen-deiturak

HNAT-aren ordezeko irakasleen izen-deiturak (Hizkuntza Normalizazioko Arduradun Teknikoa)

NAN	Izen-deiturak

Aurkezten diren dokumentuak

HNAT-aren ordezeko irakasleen nominak (irailetik ekainera)

- Iraila (2021)
- Urria (2021)
- Azaroa (2021)
- Abendua (2021)
- Urtarrila (2022)
- Otsaila (2022)
- Martxoa (2022)
- Apirila (2022)
- Maiatza (2022)
- Ekaina (2022)

Sortutako guztizkoa (Ordainketa Eskuordetutik kanpokoa):

ZINPEKO AITORPENA

Aitortzen dut eranskin honetan jasotako datuak egiazkoak direla eta deialdian ezarritako betebeharrak betetzen direla.

DATUEN BABESARI BURUZKO OINARRIZKO INFORMAZIOA

Zure datu pertsonalak erabiliko dira, eta tratamendu-jarduera honi erantsiko zaizkio: Hezkuntza Berritzatzeko dirulaguntzak.

Arduraduna: Hezkuntza Berritzatzeko Zuzendaritza, Hezkuntza Saila**Helburua:** Hezkuntzaren Berritzatzea finantzatzea eta laguntzea**Legitimazioa:**

Tratamendua beharrezkoa da, interes publikoaren aldeko eginkizunen bat betetzeko edo tratamenduaren arduradunari emandako botere publikoak betetzeko jardunean.

38/2003 Legea, azaroaren 17koa, dirulaguntzei buruzko Orokorra 1/1997 Legegintza Dekretua, azaroaren 11koa, Euskadiko Ogasun Nagusiaren Antolarauei buruzko Legearen Testu Bategina onartzen duena.

Hartzaileak:

Autonomia Erkidegoko beste organo batzuk

Ekonomia eta Ogasun Saila

Eskubideak: Datuak eskuratzeko, zuzentzeko eta ezabatzeko eskubidea duzu, baita informazio gehigarrian jasotzen diren bestelako eskubide batzuk ere.**Informazio osagarria:** Gure web-orrian kontsulta dezakezu Datuen Babesari buruzko informazio gehigarri eta zehaztua: www.euskadi.eus/informazio-klausulak/web01-sedepd/eu/gardentasuna/050400-cap2-eu.shtml**Araudia:**Datuen Babeserako Erregelamendu Orokorra (www.euskadi.eus/contenidos/informacion/normativa_dpd/eu_def/adjuntos/RGPD-2016_0679_eu.pdf).3/2018 Lege Organikoa, abenduaren 5ekoa, Datu Pertsonalak Babestekoa eta Eskubide Digitalak Bermatzekoa. (www.boe.es/boe_euskera/dias/2018/12/06/pdfs/BOE-A-2018-16673-E.pdf)